

IDEIA

Proiektu honen oinarria bidaiak eta aisialdiko planak antolatzeko aplikazio digital kolaboratibo baten sorreran datza. Aplikazio honen helburu nagusia interes, gustu eta beharrian antzekoak dituzten pertsonak eta taldeak elkartzea da, bidaia edo plan bateratuak modu errazago, merkeago eta antolatuagoan egiteko aukera eskainiz.

Gaur egungo gizartean, ohikoa da lagun-taldeek edo pertsona bakarrek bidaiatzeko edo aisialdiko plan bereziak egiteko gogoia izatea. Hala ere, askotan hainbat oztopo agertzen dira: prezio altuak, antolaketa zaila, denbora falta, informazio gehiegi baina sakabanatuta egotea edota talde txikietan bidaiatzeak dakartzan kostu gehigarriak. Faktore horiek guztiek bidaia-plan askoren bazterketa eragiten dute.

Aplikazio honen bidez, arazo horiei guztiei irtenbide integrala eskaini nahi zaie. Plataforma bakar batean antzeko helmuga edo planak egin nahi dituzten pertsonak konektatuko dira, talde handiagoak sortuz. Horri esker, bidaien antolaketa erraztu egingo da eta, aldi berean, kostuak murriztu ahal izango dira. Gainera, aplikazioak prozesu osoa zentralizatuko du: hegaldiak, ostatuak, jarduerak, ordainketak eta talde-antolaketa toki bakar batean bilduko dira.

Idea hau sortzerakoan kontuan hartu dira gaur egungo turismoaren joerak, gazteen bidaiatzeko ohiturak, teknologia digitalen erabilera handitzea eta esperientzia sozial eta partekatuen garrantzia. Ondorioz, aplikazioa bidaien antolaketa modu kolaboratiboan egiteko tresna berritzaile gisa aurkezten da.

